

ASTI-LEKU IKASTOLA

Lanbide ezberdinen egunerokoa, guraso eta ikasle ohien eskutik

50 urte betetzen ditu aurten Portugaleteko Asti-Leku ikastolak, mende erdi ezker aldean euskalduntzen. Maiatzaren 26an ospatuko den Ibilaldia antolatzeaz gain (1982koa ere euren prestatu zuten), egitasmo berria dute esku artean: ogibide ezberdinetako gurasoek euren lanaren berri emango diete etorkizuneko bidea aukeratzearen diren Batxilergoko ikasleei.

| MARIJO DEOGRACIAS |



ASTI-LEKU

IBAR EZKERREKO IKASTOLA SENDO BAT egiteko asmoz sortu zen orain mende erdi Asti-Leku ikastola. Inguru horretan hezkuntza ziklo osoa eskaintzen duen ikastola bakarra da eta Portugaletekoak izan arren ikaslerik gehienak, Sestao, Santurtzi, Muskiz, Trapaga, Barakaldo eta Castrotik etorritako ikasleak ere badituzte; eskuinaldeko ibarretik datorrenik ere bada. Guztira 1.200 familiaren seme-alabak hezten ditu hiru eraikinetan, 1.619 ikasle inguru Portugaleteko Grumete Diego-ko instalazioetan.

Asti-Lekuko ikasleak, ikasgelan.

Ikastolak herri ekimenetik sortutakoak izanik, hortik ere badu Asti-Lekuren asmo pedagogiko berriak. Gurasoen kooperatiba da ikastola, eta hezkuntza komunitatea sendotu asmoz, gurasoak eta ikasle ohiak inplikatu dituzte proiektu horretan. Iñaki Vazquez ikasketa buruak dioenez, “ikastolaren azpiegituren %25 erabiltzen da eta gehiago aprobetxatzeko arratsaldean EGA ikastaroak eta aisialdikoak ere antolatzen dira, baina zer gertatzen da giza baliabideekin? Zergatik ez gurasoen lan esperientzia baliatu gure ikasleei

errealitatetik gertuago dauden esperientzien berri emateko?”. Hala, helburua da Batxilergoa amaitzera doazen ikasleek, euren etorkizuneko ogibidea aukeratzeko orduan, “bentako esperientziak jaso ditzaten, bizi dezaten ogibide baten atzean dagoen lan egoera”. Horretarako, ikasle horiei eman ohi zaien orientazio programatik harago jotzea erabaki dute eta ziklo horretako bi ikasturteak barne hartuko dituen esperientziari erkingo diote.

Ikasleak ere, beren bizitza markatu duen hautua egiteko sasoian, benetan inplikatzeko beharrezkoa dela dio Vazquezek: “Dena ez da informazioa jasotzea, ikasleek izango duten etorkizuna eraikitzeke hautu horretan komeni da ezagutzea euren aukera profesionalaren egunerokoa. Eta horri erantzuteke zer hobe, arlo horretan lan egiten duten profesionalekin aritzea baino?”.

Halaber, ikasleek dituzten aukeren ezagutza zabaltzeko asmoa du egitasmoak. “Betiko titulazioetatik harago, profesional baten lan esparrua askoz ere zabalagoa da: Zuzenbide ikasketak ez dira abokatu izatera mugatzen, prokuradore edo epaile ere izan daiteke

“Zergatik ez gurasoen lan esperientzia baliatu gure ikasleei errealitatetik gertuago dauden esperientzien berri emateko?”

Iñaki Vazquez, ikasketa burua

Zuzenbidea ikastera joaten dena”. Beraz, alde batetik, hezkuntza komunitatea osatzen joateko lehenengo pausoak ematea da bilatzen dutena, aurrera begira gainerako ikasketa zikloetara zabaltzeko aukera ere emango die-lako. Eta bestetik, Asti-Lekuren “marka” sortu nahi lukete, hau da, “egunerokotasunetik gertuago egongo den orientazio aktiboa lantzea, ikastolaren ezaugarri gisa”. Azken batean, ikastola kooperatibaren formakuntza eskaintza osatzera datorren egitasmoa dela dio ikasketa buruak: “D ereduan, ikaskuntza kooperatiboan eta IKT-en inplementaziotik harago, gure ikasleei zerbait berezia eskaini gura diegu, beste lekue-tatik bereiziko gaituen zerbait, alegia”.

Bost lanbiderekin abiatu dira

Esan eta egin. Bost bat lan arlo profesionalekin hasi dira lanean, eta datorren ikasturteetik aurrera, eskola-orduetatik kanpo, mintegietan parte hartu beharko dute ikasleek. Gurasoak eta ikasle ohiak izango dira hizlari eta alde z aurretik aholkularitza jasoko dute, 16-17 urteko gazteei nola zuzendu behar diren jakin dezaten.



Beti dago lehen aldi bat edozertarako...

Bizikleta gaineko lehen abenturarako. Eta askoz gauza gehiagotarako ere bai; erosketa supermerkatua joan gabe egiteko, adibidez. Iritsi zaizu EROSKI online estreinatzeke unea.

Eta lehen aldia duzula ospatzeko,

10€

oparituko dizkizugu online egindako lehendabiziko erosketan.

EROSKI online Supermerkatuan 80 €-tik gorako eskaerarako balio du.

eroski.es

EROSKI online
zurekin

ASTI-LEKU IKASTOLA

MARIJO DEGRACIAS



Iñaki Vazquezek kontatu digunez (irudian), bost bat lan arlo profesionalekin hasi dira lanean. Gurasoak eta ikasle ohiak izango dira hizlari eta alde zaurretik aholkularitza jasoko dute, 16-17 urteko gazteei nola zuzendu jakiteko.

Gainerakoan, eta ikasleei begira, hiru hilero antolatuko dituzte Batxilergoko lehenengo mailakoentzako mintegiak (Zuzenbidea, Ingeniaritzak, Enpresa Zuzendaritza, Magisteritza eta karrera puruak). Ikasleek, gutxienez, horietako bat aukeratu beharko dute eta ikasturtearen amaieran, ekainean, egiten duten aukeraren arabera tutorea izendatuko zaie. Batxilergoko bigarren mailako lehenengo hiruhilekoan aurkeztu beharreko txostena osatzen lagunduko dio tutoreak ikasleari. Bigarren fase horretan, tutoreak lana baloratuko du eta ondoren, ikasleek ikaskideei aurrez aurreko aurkezpenean egin beharko diete, “nahi duten hizkuntza eta formatuan”.

Hortaz, Batxilergoko bi ikasturteak barne hartuko ditu orientazio aktiboaren proiektuak: ikasleak lehenengo informazioa jasoko du, horren arabera aukera egingo du eta amaitzeko, tutorearen laguntzarekin lana osatu eta ikaskideen aurrean aurkeztuko du, tribunalak balora dezan. Azken xedea, esan bezala, ikasle horiek laguntzea izango da,

Batxilergoa amaitzerako egingo dituzten goi mailako ikasketak ahalik eta egokien aukera ditzaten. Aurten 227 ikasle ari dira Batxilergo egiten Asti-Lekun eta hurrengo ikasturterako antzerako kopurua espero dute.

Aurrekariak

Unibertsitateko ordezkariak ikastolara joaten hasi aurretik, Asti-Lekuko ikasle ohiez baliatzen ziren Batxilergoko ikasleen orientazioa errazteko. Ikasketa unibertsitarioak egiten ari ziren ikasle ohiak ematen zituzten azalpenak, baina egutegi arazoak izaten zituzten eta egitasmoa bertan behera laga zuten azkenean. Gaur egun, unibertsitateetako ordezkariekin egiten dituzte orientazio bilera informatiboak, baina “modu pasiboan egiten da orientazio edo aholkularitza hori eta harago joan nahi genuen”, diosku Vazquezek.

Beste hainbat lekutan (Kanadan, Frantzia eta euskal ikastetxe pribatu batzuetan) antzeko egitasmoak egiten diren arren, Asti-Lekuko Katalunian jarri dute fokua. “Treball de recerca” esaten zaio han, hots ikerketa lana; curriculumaren barruan dagoen ikasgaia da, Batxilergoko ikasle guztiek duten derrigorrezko ikasgaia. Ikerketarako gaitasuna lantzea du helburu ikasgai horrek eta han ere eskola-orduetatik kanpo egiten da, ikasleek tutore baten aholkularitza izaten dute eta Batxilergoko azken nota osoaren ehunekoan eragiten du.

Asti-Lekuko ikasgai horren egitura hartu dute hizpide, eta ikasleentzat orientazio aholkularitza modu aktiboan antolatzeke ikerketatileran eraberritzen dute: “Jaso duten informazioa benetako formazioa izan dadila gura genuke. Azken batean jasotzen den formakuntza bizi-tza osorako izaten baita. Bizitza proiektu baterako gaitasunak landu behar izaten ditu ikasleak eta aukeratzen den karrera horren atzetik dagoen benetako lana ezagutzea lagungarri izango zaie gure ikasleei”, adierazi digu Iñaki Vazquezek. ■



MUSEOEN NAZIOARTEKO EGUNA 2013

maiatzaren 18a, larunbata eta 19a, igandea

ERAKUSKETAK, LANTEGIAK, BISITA GIDATUAK, PROIEKTZIOAK, SCRATCH EGUNA, ELKARRIZKETAK, ETA KONTZERTUAK

Artium
Arte Garaikideko
Euskal Zentro-Museoa
Centro-Museo Vasco
de Arte Contemporáneo



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava

zuk
nahi duzuna

TARIFA

Zure esku dago
ordaintzen duzun eta zenbat

Argibide gehiago:

www.artium.org
945 20 90 20
museo@artium.org



11:00 – 21:00
ETENGABE